

## UDALEKUEN ETA COVID-19AREN INGURUKO INFORMAZIOA FAMILIENTZAT

Herritarren artean lortutako immunitate-maila altuek COVID-19aren epidemiologian aldaketa eragin dute eta gaur egun aurkitzen garen fase honetan, arreta pertsona, talde eta esparru kalteberen\* zainketara bideratu beharra dago, baita COVID-19 kasu larrietara ere.

Udalekuak ez dira eremu kalteberatzat hartzen; beraz, ez da frogarik egingo edota neurri berezirik hartuko udalekuetara joaten diren kolektiboekin.

Pertsona batek **COVID-19 sintomak izanez gero (edo emaitza positiboa izango balu), jarduera hasi aurretik edo jardueran zehar** hurrengo neurriak bete beharko ditu:

- Isolamendua egitea **EZ** da beharrezkoa izango.
- Musukoa\*\* erabili eta eskuen higiegi egokia mantendu beharko du. Pertsona zaurgarriekin kontaktua sahiestu beharko du.
- Sintomak eragozten baldin badiote, **EZ** ez da joango edo ez du jardueran parte hartuko haurraren beraren eta ingurukoaren hobebeharrez, beste gaixotasunekin egin behar den modura.

Espazio guztiak **aireztatuta** egotea gomendatzen da, logelak barne.

**COVID-19aren sintomarik ohikoenak honako hauek dira:** sukarra, eztula, eztarriko mina, aire faltaren sentazioa edo usaimena edo dastamena galtzea. Pertsona batzuek mina, mukiak edo beherakoa ere izaten ditzakete. Orokorrean, ez da osasun-profesionalen artatzerik beharko sintoma arinak direlako. Hala ere, sintoma larriak izanez gero edota bere egoerak okerrera eginez gero, osasun-sistemearekin harremanetan jarri.

**\*¿Zeintzuk dira COVID-19arekiko talde kaltebera batean egoteko baldintzak?**

- 60 urtetik gorako pertsona oro
- Haurdunaldia
- Inmunodepresio mota jakin batzuk pairatzea. Zalantzarik baduzue, talde honen baitan dagoen ala ez jakiteko osasun-profesionalekin kontsultatu bere egoera zehatza.

**\*\*Musukoaren erabilera 6 urtetik beherako haurren kasuan.**

Haurraren adina eta ezaugarrien arabera, musukoaren erabilera gomendatzen da posible den kasuetan. 3 urtetik beherako haurren kasuan, musukoaren erabilera ez da gomendatzen.

---

COVID19aren inguruko informazio eguneratua eta egoera bakoitzaren aurrean nola jokatu web-orrian aurki dezakezu: <https://www.euskadi.eus/nola-jokatzen-dut/web01-a2korona/eu/>

Zalantzekin jarraitzen baduzue edota bide telematikoa zaila egiten bazaizue, **900 20 30 50** zenbakira dei dezakezue.